

PINUAREN ERRETXINA



Umeei oso bitxiak iruditu zitzaizkien zuhaitzen enborretan zintzilik zeuden poto batzuk. Jakin-minak bultzatuta, goitik behera aztertzen eta ukitzen ibili ziren. Irakasleak zertarako ziren azaldu zien:

- Poto horietan erretxina biltzen da, sua hain erraz hartzen duen likido hori; gogoratzen al duzue? Basozainak 30 zentimetroko ebakia egin du pinuen enborretan, erretxina isur dezaten. Isuritako erretxina hori potoetan biltzen da, oso erabilgarria delako.
- Ene! Atzamarrak itsatsi zaizkit eta, gainera, marroi jarri zaizkit!-esan zuen Patxik pinu baten enborra ikutu eta gero.
-

Irakasleak azalpenak ematen jarraitu zuen:

- Erretxina apur bat hartu eta urarekin nahasiz gero, papera itsasteko kola lortuko dugu. Erretxinatik beste produktu asko ateratzen dira, hala nola, agoarrasa edo turmentina, pinturen disolbatzaile gisa erabiltzen den likidoa. Oleoarekin margotzen ibili eta zikintzen garenean, pintzelak eta eskuak garbitzeko erabiltzen dugu agoarrasa. Erretxinatik ateratako beste produktu bat kolofonia izeneko da. Biolin- jotzaileek erabiltzen dute kolofonia, beren arkuen hariak igurzteko. Gainera, barnizak egiteko ere erabiltzen da erretxin.

Pinuaren zura edo egurra, bestalde, altzariak egiteko eta papera lortzeko erabiltzen da. Taula konglomeratuak zuraren hondakinak eta kolak zein plastikoak nahasiz lortzen dira. Nahatea prensa batez zanpatzen edo zapaltzen da, gogortzeko. Pinuaren adarrak, bai eta horiek ebakitzean sortzen den zerrautsa ere, erregai gisa erabiltzen dira.



- **Zer dago zuhaitzetako potoen barruan?**

- **Zer egin behar da enborrean erretxina isur dadin?**

- **Nork egiten du ebakia?**

- **Nolakoa da erretxina? Aukeratu erantzun zuzena.**
 Itsaskorra eta berdea.
 Gardena eta berdea.
 Itsaskorra eta marroia.

- **Nola egiten da kola?**

- **Zer produktu erabil dezakegu pintura garbitzeko?**

- **Zertarako erabiltzen da kolofonia?**

- **Barnizak egiteko, pinuen produktu bat erabiltzen da. Zein?**

- **Idatzi pinuen zuraz edo egurraz egin daitezkeen bi gauza.**

- **Zer da zerrautsa? Aukeratu erantzun zuzena.**
 Zuhaitzaren zura zati txiki-txikietan birrinduta.
 Pinuen hostoak txikiturik.